

→ Laburrak

Praileaitz I-en egoera azalduko dute Diman

ONDAREA › Praileaitzen Lagunak taldeak antolatuta, Debako aztarnategiaren egoeraren gainean hitz egingo dute, gaur, 19:30ean hasita, Diman (Bizkaia). «Aztarnategiaren babesak» izan duen garapena azalduko dute, eta baita babes dekretuaren aldaketak zer ondorio izango dituen haitzuloan eta aztarnategian. Xabi Oterok aurkeztuko du saioa, eta berarekin batera Xabier Peñalver eta Sonia San Jose arkeologoak izango dira.

Jose Saramagok 'Caín' eleberri berria ateratu du

LITERATURA › Jose Saramagok Jainkoaren figura zalantzan jarri du *Caín* bere eleberri berrian. Atzo argitaratu zuten Nobel saridunaren azken nobela haren jatorrizko hizkuntzan, portugesez, baina baita gaztelaniaz eta katalanez ere. *Caín*-en, Saramagok Itun Zaharra berrikusi du, eta gizakiaren eta Jainkoaren arteko borroka bat irudikatu du. Idazle portugaldarra orain dela urte batzuk hasi zen eleberria prestatzen, baina aruten idatzi du.

Googlek 'liburutegi digitala' bultzatuko du

INTERNET › Prestatuta dagoen edozein tresnatan irakurri ahal izango diren liburuak eskainiko ditu Google interneteko atariak, merkaturatzeko asmoa duen liburutegi digitalean. Google Editions 2010eko lehen sei hilabetean ateratu nahi dute, eta, hasiera batean, milioi erdi inguru liburu elektronikoen eskainiko ditu, guztiak argitaletxeekin elkarlanean.

Laboa kantatuko dute laborariak bihar, indarrak berritzeko

Armendaritzen elkartuko dira denak arratsean, ELB sindikatuaren bestaren karietara

Nora Arbelbide Baiona

Batzuk ezagutuak eta plazetan aritzeko usaiarekin, besteak kantuzale, nahiz eta entzuleen aitzinean aritzeko ohiturarik ez, 40 bat iganen dira taula gainera bihar Armendaritzeko (Baxenabarre) gelan, Mikel Laboa omentzera, haren kantuak emanez, 21:00etan.


Laborari, laborari alaba, seme edo iloba, Euskal Herriko Laborarien Batasuna (ELB) sindikatuak bere bestaren karietara antolatu hitzordua da. Zergatik Laboa? Kantari gisa egin ekarpena omentzeko beharra sentitzeaz gain, itzaropen kantuak dituelako: «Eta ikusiz eta laborariak ditugun arrangurak, esperantza ez galtzeko» balio dutelako, talde antolatzailean den Daniel Barberarenaren hitzetan. «Izarren hautsa kantua, adibidez, nik esperantza kantu gisa hartzen dut. Biziak beti segitzen duela aitzina dio, eta guk ere gure ekarpena egin behar dugula mundu honetan».

Gaualdia, «hatsa hartzeko» memento bat bezala ikusten du Barberarenak, eguneroko borroketan berriz sartu baino lehen: «astelehenean berean berriz hasi beharko dute gutariko batzuek».

behi esnearen sektorekoek, besteak beste. Orotara hogeita bat kantu emanen dituzte, denak Mikel Laboak kantatuak. Hasteko, kantaldia Armendaritzen izanez, hor bizi zen iaz zendu Ernest Alkhat bertsolaria gogoratuko dute.

Martikorena, Aire Ahizpak...

Bilduko diren artisten artean, Erramun Martikorena, Xalbador eta Ihidoi, Aire Ahizpak, Jean-Paul Jaunarena, Sylvie Brust, Luxi Agergarai, Bankarrak, Jean-Michel Etxegarai, Extebe Sallato, Dominika Agergarai, Filipe Uthurralt, Henri Castillon, Garaziko artzainak, Garaziko laborariak, Laurent Ascarrai, Miren Eiherrabide, ELBko gazteak eta Maite Aristegi dira besteak beste aritzekoak, ELBren bestari beste oihartzun bat emanez. Alabaina, usaiari, herri bazkari bat du bizkarrezurra bestak. Baina iaz, kortsikar talde bat gonbidatu zuen bazkari bezperan, eta kasik



Laboak kantuen bidez ekarri esperantza berriz bizi araztea dute xede. BERRIA

700 bat pertsona bildu ziren. Aurtentzuz berretsi nahian, go-goetan egon ziren, irlandarrak deitu edo... Orduan batek botatu zuen, «zergatik ez baliatu ditugun kantariak?» Laborarien arte-

an kantatzen dutenak andana bat direla kontuan harturik. Guztiak elkartzeko, Laboa omentzea egokiena izan zitekeela adostu zuten. Hori bai, igandean bazkaria egingen dute, Jutsin.

Txori Urdin
Blue Bird

Sariak:
(Berlingo Nazioarteko Zinemaldian) -Filmetik onenari-
(Montrealgo Haurren Nazioarteko Zinemaldian)
(Torontoko Haurren Nazioarteko Zinemaldian)

Zinemaldia: ELKE FORK, SIMON HILLEN VAN DER MEULEN, AZARU, JOHANNES, GOSWAMI, DOOP, HANSEN, JONK, THIESEN // Euzkoan: BARRIO, JOELIN LARRENAN
Jatorria: HOLLANDA, BELGICA, SUIZVIZA, AUSTRIA, SLOVENIA, HOLLANDA, BELGICA, SUIZVIZA, AUSTRIA, SLOVENIA, HOLLANDA, BELGICA, SUIZVIZA, AUSTRIA, SLOVENIA
Casting: ANJA CASTING, JOH COECHALK, SAIDA VAN DER REIJ, MARINA WIJN, Sander Nijhuis, KLINIK, PAUL, EISE, Hans-Bernd, HANS DE WEEDE, HANS DE WOLF

filmaren estreinaldia euskaraz

Asteburu honetan:

- Donostia OSCAR LA BRETXA
- Errenteria NIESSEN ZINEMAK
- Gasteiz YELMO GORBEIA
- Bilbo YELMO MEGAPARK (Barakaldo)

CHECKPOINT ROCK
KANTUAK PALESTINATIK

حاجز الصخرة
موسيقى تضرب الجدران

FERMIN MUGURUZAK ZUZENDUTAKO FILMA
ERREALIZADOREA JAVIER CORCUERA

URRIAREN 16AN ZINEMETAN
IKUSKIZUNEN SAILA KONTSULTATU